



DEBAKO UDALA

JOSE MARI IRUSTA MUGARZA DEBAKO HERRITARRA ERAIL ZUTENeko 75. URTEURRENEAN HONAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTU DU DEBAKO UDALAK

Debako semea zen Jose Mari Irusta, 1908ko azaroaren 17an jaioa. ANV-ko kidea izan zen. Baionara ihes egin zuen gerra garaian eta bertan naziek atxilotu eta Dachaura deportatu zuten 1944ko abuztuaren 28an. Melk-en erail zuten 1944ko azaroaren 13an.

Debako udalak, urteurrena baliatu nahi du herriko semeari merezi duen omenaldia egiteko.

Hau horrela, adierazpen instituzional honen bidez, adierazten du:

- Jose Mari Irustarekin eta beste milaka pertsonekin egindako bidegabekeria salatzen dugu. Bere ideietatik, atxilotuta, torturatuta, lan behartuak egitera derrigortua izan zen, kontzentrazio eremuetan egon ondoren erail zuten naziek. Ez dugu onartzen nazismoaren edo frankismoaren garaian pertsonen ideia politiko, jatorri edo dena delakoagatik atxilotuta, torturak edota erailketak egitea.
- Bere familiari euren senideak jasan izandakoagatik elkartasuna eta babesa adierazten diegu. Jakin baitakigu urte askotan bakardadean eta inolako aitortzarik jaso gabe sufritu behar izan duela familia bakoitzak bere mina.
- Memoria historikoa errekuperatzeko lan egiteko konpromisoa hartzen dugu. Testuinguru horretan kokatzen dugu aste honetan Jose Mari Irustaren erailketaren urteurrenean egingo diren ekimenak. Gure ondorengoek iragana ahaztu ez dezaten, horrelako egoerak errepikatu ez daitezen.
- Salatzen ditugu, halaber, gaur egun, oraindik ere ideia politiko, jatorriagatiko edo beste arrazoiengatik bazterkeria eta errepresioa sufritu behar izatea eta elkartasuna adierazten diegu.



Deba, 2019ko azaroaren 11